

Durangok baditu dagoeneko ludoteka eta gaztelekua

Gutziz eraberritutako oktogonoak, besteak beste, bileragune berria, zeramikako tailerra, Izarra Astronomia Elkarteko gela, ludoteka eta gaztelekua izango ditu barnean

Herriko ume zein gazteentzako ludoteka eta gaztelekua inauguratu genituen pasa den apirilaren 30ean. Itxura eraberritua eman diote Intxaurrendoko espazioei, eta horrela, Durangoko Gazte eta Kultur bilgune bilakatuko da. Berbarotik, hainbatetan aipatu izan dugu herriak gazteleku eta ludoteka behar zituela, eta jada hemen daukagu. Hori gutxi balitz bezala, apiriletik ekainera Berbaroko lantaldekook arduratuko gara gazteleku zein ludotekako funtzionamenduz.

Txikienentzako ludoteka


Helburu jakin batzuei erantzuteko sortu da ludoteka. Balioetan heziko duen espazio bat sortu nahi dugu, euskararekiko maitasunean, autoestimuan, besteekiko nahiz ingurunearekiko errespetuan, aniztasunean, autonomian, lankidetzan eta parte-hartzean besteak bes-

te. Helburu horiek betetzeko, egutegi eta ordutegi zehatzak planteatzen dira. Astelehen eta asteazkenetan ludotekan txikienak egongo dira, 5-8 urte bitartekoak, bi hezitzaileekin batera 17:00etatik 19:00etara. Asteburuetan, ordea, 8-12 urte bitartekoak txanda izango da. Horiek zapatu eta domeketan bertaratu ahalko dira, larunbatetan 17:00etatik 20:30era eta domeketan 17:00etatik 20:00etara. Bi hezitzaile izango dituzte bertako dinamizatzaile, helburua autonomoki funtzionatzea bada ere.

Gazteen elkargune

Gaztelekuak, ludotekak dituen helburuez gain, baditu beste batzuk ere. Nerabeen topaleku izatea nahi dugu, gazteenek aisialdia modu aktiboan, parte-hartzen eta gozatzen pasa dezaten, aisialdi kontsumistari alternatibak eskainiz eta errespetuan eta bizikidetzan

oinarritutako gune bat sortuz. Bertako ordutegia ludotekako bera izango da. Astelehen eta asteazkenetan 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik, kasu horretan hezitzailearik barik, guztiz autonomoa izanik. Asteburuetako jarduna, ordea, desberdina izango da, gidatutako dinamika izango dira: sukaldaritza tailerra, zinema, eskulanak, kirol jarduerak... Hiru hilean behin irteera bat egitea proposatu zuten gazte forokoek, hondartza, abentura parkea, etab. Ordutegiari dagokionez, larunbatetan 17:00etatik 20:30era egongo da eta domeketan 17:00etatik 20:00etara. Asteburuetan momenturo egongo da hezitzailearen bat saioa gidatzen, nahiz eta, nagusiki gazteek beraiek gidatzea den helburua. Horretarako, aipatu bezala, parte-hartze aktiboa bultzatu behar dugu, hezitzaileak laguntzaile huts izatera pasatuz.



Korrikaren lekukoa hartu eta eman genuen Durangon ere

Pandemiak eragindako urtebeteko atzerapenarekin, Korrikak Euskal Herriko errepideak zeharkatu zituen



Igartzen zen Korrikaren 22. ediziorako gogoia, eta ez zen gutxiagorako: pandemiak urtebeteko atzeratu zuen ekimena, eta durangarrok, Euskal Herri osoan legez, irrikaz geunden gure herriko kaleak noiz jendez beteko; irrikaz furgonetaren atzetik arineketan ehunka euskaltzalek euskaraz bizi gura dugula aldarrikatzeko. Hiru urtez Korrika gosez egon ostean, kaleak jan genituen, bariku euritsu bateko goizaldeko 5etan. Mila lagun inguruk egin genuen ia ordubeteko itzulia Durangon zehar, "Durangon ere euskaraz", "Ttipi-Ttapa Korrika", "Hemen gaude euskararen alde" eta antzerako oihuen artean astindu genituen kaleak, baita batzuen lozorroa ere.

Berbaro Elkartekook, beste edizio batzuetan legez, Anboto Komunikabideetako lagunekin batera erosi genuen kilometroa, eta gure presidente Zihortza Irazabalek eta Anbotoko Ainhoa Iraolak esku batez eraman zuten lekukoa, Laubideta kaletik Zubiaurre kale amaieraraino. Balio dezala Korrikak euskaltzaleon grina piztu eta elikatzeke. Guk, behintzat, jaso dugu txutea lanean jarraitzeko!

Gazteok hitzekin

Hiru urteko etenaren ondoren, Korrikak Euskal Herriko zazpi lurraldeak harilkatu zituen beste behin. Durangon, apirilaren 1ean hartu zuen lur. Ordu txikitari jaiki ginen ohetik, nagai gutxiarekin eta ilusio handiarekin, bidaiatu aurreko urduritasunen antzeko sintomekin. Behartu xamar gosaldu, xira jantzi eta kalera! Goizaldeko bostak izan arren, ohi baino arima gehiago ikus zitezkeen Laubidetan, Goienkalen edo Askatasun etorbidean. Guk, Gazte Kilometroa osatzen genuen eragileok, Tabiran egin genuen hitzordua. Bengala eta su artifizial ikusgarriari su eman, lekukoa hartu eta arineketan hasi ginen furgoneta eta furgonetero nekazekin atzetik, "Durangon ere euskaren alde!" oihuekin bat eginez #KLAK!, Ikama, Ernai eta Sorginolako gazteak. Bideoa ikusi, eta zirrara pizten zaigu oraindik.

Horma irudia eta EH Korrika erronka

Euskaren aldeko egitasmo jendetsuena hasi baino lehen, motorrak eta giroa berotzeko asmoz, mural bat margotu genuen. Durangoko Institutuko ikasleak izan ziren "Gazteok Hitzekin!" mezua horman irudikatzearen arduradunak. Batxiler artistikoan dabilzan gazteek maisuki koloretatu zuten euskaren aldeko aldarria.

Hortaz aparte, Euskal Herriko zenbait txokotara joan ginen korrika egite-

ra. Lehenengo geldialdia Donibane Garazin egin genuen, hiriburuko karririkak zeharkatuz. Gero, Ziburuko gazteekin egin genuen topaketa, Maule zaharrean. Egun hartan, liburuak eta diskoak trukatu genituen; batzuek Izaro eta Joseba Sarrionandia, besteek Xiberoots eta Mikel Etxekopar. Erraza da asmatzen nork-nori-zer. Astebeteko erronka Tolosan amaitu genuen, euskaltzale andanaz inguratuta. Araba eta Lapurdiko herriak bisitatu ezin izanaren penaz geratu gara, baina, era berean, pozik gaude gazteek

ekintzetan parte hartzeko erakutsi duten jarrera positiboarekin. Hori du Korrikak beste ezerk ez duena, aparteko ahaleginik egin gabe, gazte jendea, umeak, helduak ala nagusiak batzeko ahalmena. Aurrerantzean bide beretik jarraituko dugu, euskararen erabilera soziala bultzatzen, betiere Durangaldeko gazteen nahi eta motibazioetatik abiatuz. Hurrengo zita ekainean dugu, Oholtzoratu musika jaialdiaren bigarren edizioa antolatzea goaz eta. Ea iaz bezain beste lagun elkartzeko garen!



Udaberria loratu ondoren, badatoz udalekuak

Udaberrian Olgetan bukatuta eta ikasturtea amaitzean dagoela, badator uda eta udarekin batera, udalekuak



Ikasturtea amaitzeko gutxi falta da, eta, beste urte batez, badatoz udalekuak. Azken bi urteetan pandemiaren eraginez, udalekuak baldintzatu egon dira, baina aurtengo udalekuak Covid-19 aurrerako egoerara bueltatuko gaituzte, aurretik egin izan ohi dugun lez, egun eta gazte kopuru bera izango dugu. 5 udaleku antolatuta ditugu: Durangon,

4 astez Udako Olgetan udalekuak; bi finiko, Larraul (Gipuzkoa) eta Mendigorria (Nafarroa); eta bi ibiltari, Ibiltari txikia (Markiña – Bermeo) eta Ibiltari handia (Doneztebe – Mutriku).

Udako Olgetanen, astean behin igerilekura, inguruko herrietara irteerak... egingo dituzte. Horrez gain, jolasez, esku lanez, eta abarrez beteriko udale-

kuak izango dira. Ekainaren 27an hasi eta uztailearen 22ra arte gazteak gora eta behera ibiliko dira.

Larraul LH 3 eta 4 mailetako ikasleei bideratua egongo da. Ekainaren 24an joango dira eta uztailearen 3an bueltatu. Larraul, herria bera, Asteasu... ezagutzeko aukera paregabea izango dute. Urte batzuk pasa dira Mendigorrian azkeneko egon ginenetik, eta aurtengo bertara bueltatuko dira, bertako igerilekuak gozatzeko, irteerak egiteko, ekintza bereziak egiteko... Uztaileak 1etik 12ra bitartean izango dira bertan gazteak.

Ibiltari txikiak, 12egunez, Lea Artibai eta Urdaibai batuko ditu, zenbait etapa eginez. Ibiltaria ekintza bereziak, mendi ibilbideak, tailerrek, jolasek eta abarrek osatuko dute. Azkenik, Ibiltari handikoek Nafarroa Gipuzkoako kostarekin lotuko dute, uztaileak 7tik 18ra bitartean.

Udaberrian Olgetan izan dugu egunotan Intxaurren. Bi astez ibili dira gazteak gurekin, goizeko 9:00etatik 13:00etara. Lehenengo astean eguraldiak lagunduta Durangon zehar irteerak, jolasak eta abar egin zituzten. Bigarren astean, aldiz, eguraldia ez da hain ona izan, baina horren aurrean gazteak ere pozik ibili dira, eta eskulanak, zinema, jolasak... egin dituzte. Pozik joan dira etxera, eta datorren urtean, udalekuan, kalean... elkartzeko garelakoan agurtu ditugu.

Alazne Arandok hartuko du Amaia Ugaldek eta Amets Menikak utzitako lekua

BERBAROko Euskara Sailean aritu diren lankideei agur esan diegu eta gurekin hasi da lanean maiatzean

Berbaro elkartearen lehendik ere ezagutzen zuen, bazekien gazte arloarekin lotutako hainbat proiektu ditugula, baina ez zuen euskara zerbitzuaren berririk. Heldu zenean egiaztatu zuen euskaltzalez osatutako elkartearen dela gurea, bakoitzak bere aletxoak jartzen duela Durango euskalduntzeko. Entzunda zuen oso giro ona daukagula, eta ziurtatu ahal izan du, lantalde polita daukagu.

Euskal Filologia ikasketak egin ditu, zail egiten zaio aukeratzea zein arlo duen gus-tukoan, gramatika, fonetika zein dialektologiako ikasgaiak aipatu ditu. Azken nabarmenduko luke, oso aberasgarria izan baitaio euskalki guztietan sakondu eta gure hizkuntzaren aldaera ezberdinak ezagutzeko.

Asko motibatzen du udaleko paisaia linguistikoa euskalduntzeko helburuak, eta,

nahiz eta horretan inoiz aritu ez, euskaraz lan egiteko baliabideak eskaintzea eta langileak motibatzea erronka pertsonal modura hartu ditu. Politza litzateke onerako aldaketak ikustea.

Elorriokoa da Alazne, badaki euskaldun kopurua erdaldunena baino handiagoa

dela, baina errealitatean ez dela espero daitekeen euskara erabiltzen. Durango-ko datu soziolinguistikoei begira ibili da eta ikusi du alde nabarmena dagoela hizkuntza-gaitasuneko datuak eta erabilera errealekoen artean. Argi dauka oraindik lan asko dugula egiteko.

Durango-ko Udalean euskara trebatzaile ibiliko da, itzulpenak eta zuzenketak egingo ditu, zalantzak argitu eta ikastaroak eman. 'Kafelagun' proiektua interesgarria iruditzen zaio. Esan diegu izenekin ez dela trebea eta nahiko lan izango duela langileak ikasten, baina gogotsu dator eta apurka joango da ohitzen eta erritmoa hartzen.



Euskara ingurune digitalera: Bainugela

Badira hilabete batzuk ingurune digitalean nola eragin erabakitzeko batu ginenetik. Denbora horretan, ia martxan dagoen proiektu bati forma ematen aritu gara Berbaroko kide batzuk eta parte hartzera animatu diren zenbait durangar gazte. Proiektua BAINUGELA deituko da, eta euskarazko eduki multimedia sortzeko, zabaltzeko eta entzuteko espazio irekia izatea du helburu. Irratsaioak eta bestelako eduki multimedia sortuko duten hiru talderekin abiatuko da proiektua. Errezetei, musikari eta gai randomei buruz hitz egingo dute taldeok lehenengo saio horietan. Denborarekin, proiektura saio gehiago batzea da asmoa. Izan ere, euskarazko eduki multimedia sortu nahi duten durangarrak erakarri nahi ditugu BAINUGELARA. Azken ukituak falta dira proiektua martxan hasteko. Laster izango da abian BAINUGELA!



Intxaurrondo eraikina da gure etxe berria



Urtebete pasatxo "Oktogonoa" izeneko eraikinean egin ostean, behin betiko kokalekua izango dugunera aldatu gara: Intxaurrondo eraikina. Laubideta kalea 6A da gure helbide berria. Durangoko elkarte eta hainbat talderen bilgune izan gura duen zentroan daukagu bulegoa, lehen solairuan. Bertan daude JAED, Inurri Eskaut eta udaleko gazte bulegoa ere, besteak beste. Geube eta beste elkarte batzuk ere lekualdatuko dira bertara datozen hileetan. Espazio egokiagoa da gure eguneroko lanetarako, eta, batez ere, jendeari harrera egiteko kokaleku hobe da. Bestalde, Udalak datozen hileetan egingo dituen egokitzapen eta dekorazio lanak amaituta, Intxaurrondok ikusgarritasun handiagoa izango du, eta elkarteetako kideon joan-etorriek bizitza emango diote eraikinari, Pinondo etxean geundenean izaten zen antzera. Ateak parez pare zabalik izango dituzue, eta edozertarako, badakizue: hemen egongo gara zuen zain.

Larrosa eta Arantza

Larrosa

Udaberriaren hasieran larrosa loreztatu zen. Martxoaren 27an, Mugarra Triatloi Taldeak Durangoko XIV. Duatloia antolatu zuen. Ez luke harritzekoa izan behar, baina onerako harritu gintuen egun horretako giroak. Kartelak, megafonia, esataria, dena euskaraz.

Horrez gain, webgunean, Triatloi eskola eta bestelako jarduna euskaraz dira. Ere-dugarri.



Arantza

Baina antza denez, udaberri amaieran, udaberri festarekin batera, larrosaren petaloak jausi egingo dira.

Arantza DAZT elkarteak daroa oraingoan. Izenburua eta eguna ez da ongarri nahikoa euskararen normaltasunerako. Lau esaldi dira, itzultzeko errazak, edozeinek ulertzeko modukoak euskara hutsean badaude ere. Baina ez da hori, badakigu zer den; betiko lez, aitzakia denbora falta izango da.

